

## AMEN BATEAN

### **Sinopsia:**

Zigor luzeroan ibili da alokatzeko etxebizitza baten bila, baina edozein gazte bezala, ez du merkatuan dagoen ezer ordaintzeko aukerarik. Alokairuan dauden etxebizitzaren gehiegizko prezioen erruz, etsita dago. Alabaina, azkenean topatu du aurre egin ahalko dion apartamentu bat. Lezo kanpoaldean dago eta Felicitas Lekuonak iragarri du. Egun bat adostu ostean, batu dira apartamentua ikusteko. Bada, halaz ere, itxura txarra duen zerbait... Felicitas andreak hilerrirantz darama Zigor. Bien arteko elkarriketaren dinamika aldatuz joango da, eta Zigorrek espero zuen egun pozgarria aldrebestu egingo da, azkenean.

Gaur egungo gazteek bizi duten etxebizitza arazoari kritika egiten dion antzerki laburra duzue honako hau.

### **Pertsonaiak:**

FELICITAS: 70 urtetik gora duen emakume konkordun zimeldua. Biziki zolia eta gupida gutxikoa. Zigor ezagutzean, nahiko inozoa dela irudi zaio.

ZIGOR: 26 urte inguruko gaztea. On hutsa eta jatorra. Fidakorra, adeitsua, baina nahiko urduria. Asko arduratzen da besteen begikoa izateaz.

*(Arrasti euritsua dugu Lezo inguruotan. Mutil gazte batek Plazeta futbol zelairanzko bidea hartu du, nahiz eta haizeak, indarrez, ibilera ekiditen diola irudi. Euri-jasak itsutzen duen arren, euritakoa eskuan, heldu da azkenean, bertara).*

ZIGOR: *(hiru aldiz doministiku egin du)* Kagueeen Dioosss!!!

FELICITAS: Ez aipa Jainkoaren izena alferrik!

ZIGOR *(eskua bihotzera darama beldurtuta)*: Jesus! Hau bai sustoa!

FELICITAS: *(atzetik agertu da emakumea)* Gaurko gazteek ez dakizue zertan datzan errespetua. *(Muturra okertu eta eskua mukizapia nola, sudurra garbitu ostean, eskua luzatu dio gazteari)* Zigor

Etxeberria?

ZIGOR (*nazka aurpegia jarriz eskuari begira*): Ee...ni neu, bai. (*Doministiku egin duen eskua praktetan garbitu du eta eskua bueltan luzatu dio*)

FELICITAS: Felicitas Margari Lekuona Goikoetxea andrea.

ZIGOR: Urte askotarako Felicitas.

FELICITAS (*gogor*): Felicitas andrea. (*Bidea egiten hasi da*)

ZIGOR (*buruari eraginez bere atzetik*): Andrea, bai, andrea, nola ez! Gizona zarela esango bazenit, errespetu beraz hitz egingo nizuke, ez pentsa.

FELICITAS: Nola?

ZIGOR: Ezer ez Felicitas Margari Lekuona Goikoetxea andrea. Plazerra zurekin egotea.

FELICITAS: Bueno, bueno! Ez ditut losintxariak gogoko. Apartamentua ikustera etorri zara, ezta?

ZIGOR: Bai, Felicitas andrea.

FELICITAS: Azkeneko hiru nomiak ekarri dituzu?

ZIGOR: Bai.

FELICITAS: Lan-kontratua?

ZIGOR: Bai.

FELICITAS: Eta gomendio-orririk?

ZIGOR: Bueno... horrekin arazoak izan ditut... lehengo aldia da eta ez dut aurreko errentatzailek. Amonari idazteko eskatu diot.

FELICITAS: (*goitik behera begiratu du*) Ontzat emango dut.

ZIGOR: Eskerrik asko! Herrian alokatzea nahiko zail dugu badakizu...web orrialdean aurkitu dudan bakarra 1800 eurotan dago, eta zure iragarkia ikustean berehala deitu nizun.

FELICITAS: Jendeak ez du proportzioaren zentzurik. Ni ez naiz inoren kontuetan sartzen den horietakoa, baina askotan esaten diet auzokoei lotsagabekeri hutsa dela hori egitea! Halako dirutzarik eskatzea ere!

ZIGOR: Miraria! Horixe diot nik! Lotsagarria! Kapitalismoak itsutu egiten gaitu, Felicitas andrea... diru-gosea, besterik ez. Jakingo bazenu zein pozik jarri nintzen zure iragarkia aurkitzean!

FELICITAS: Ba, berriketa gutxiago eta goazen barrura.

ZIGOR (*hilerriko atea seinalatuz*): Barrura?

FELICITAS: Bai, barrura.

ZIGOR (*barre urduriaz*): Leku bitxia hilerria apartamentu baterako.

(*Ez du erantzunik jaso. Zigorrek listua irentsi, eta urrats bakarria emanaz barrura sartu da*)

OFF: (*hilerrian sartu bezain laster, txakur erraldoi batek salto egin dio gainera, zaukaka, amorratua*)

ZIGOR (*hanka bat gora txakurra gelditu nahian*): Ostia, txakurra!!

FELICITAS: (*Zigor txakurrarengandik ihesi doan bitartean*) Hori ez dago alokairuan barne. Ez animaliarik, ez bikoterik, ez umerik, eta inola ere erretzeko aukerarik. (*Aski serio eta gogor*) Ez popperrik, ez kokainarik, espeedik, emerik, ez ketaminarik, metanfetaminarik, psikotropikorik, ezta heroinarik ere. Eta hare gutxiago... HARE GUTXIAGO... Marihunarik.

ZIGOR: Ados, ados, baina esaiozu pizti honi gainetik kentzeko!

FELICITAS: Alde! Alde, Florentius! Ospa!

ZIGOR: Jainkoarren Felicitas andrea, nori arraio okurritzen zaio halako animalia bat hilerrian zaindari uztea??

FELICITAS: Nork daki zer-nolako asmotxarrekoak datozen hona barrura...eta hare txarrago, zer-nolakoak irten.

*(Zigorrek alde batera eta bestera begiratu du, zertan ari diren ongi ulertu ezinik)*

ZIGOR: Orain konprenitzen dut pisuaren prezio baxua Felicitas andrea! Joder... ea nor den hilerri ondoan bizitzeko zorigaizto prestua!

FELICITAS: Beste edozein leku bezain ona. Kanpoko ikuspegi izugarria, ez duzu eskailezarik igo, ezta igogailurik hartu beharko ere. Futbol zelaiko wifia honaino heltzen da gainera. Ez duzu zertan dirurik horretan gastatu.

ZIGOR: Aa... bueno...dena abantailak direla ematen du hala esanda...

*(hilobi artean aurrera doazen bitartean Zigorrek inguruko hilarrietan idatzirik dauden izenak irakurri ditu)*

ZIGOR: Mateo Labasko Zuloaga... Gregoriana Lizaso Beraza... Fidela Sotil Urrutia... Atsekabe Lekuona Lapitz... Lekuona? Senidea?

FELICITAS: Aurreko errentaria.

ZIGOR *(hizkera estuaz)*: Hemen dio 27 urterekin zendu zela.

FELICITAS: Bizi gaiztoa zeraman mukizu esker txarreko horrek. *(aitaren eginez)* Gehiago eta gehiago nahi beti. Baina...ustekabeen utzi gintuen. Nork daki zerk bultzatuta. Gogoratu ongi Zigor Etxeberria: *mens sana in corpore sano*. Horrek orain *corpore sepulto* du.

ZIGOR: *(gero eta urduriago)* Enee... hori bai zorigaiztoa...

*(Aurrera egin dute eta panteoi familiar batera heldu dira)*

FELICITAS: Hemen dago.

ZIGOR: Hemen zer?

FELICITAS: Apartamentua.

ZIGOR: (*Arnasa sakon hartu du*) Ea argitzen dugun gure arteko elkarrizketa aldrebestua, ze ez dakit belaunaldi-arrakalagatik izango den, edo agian *Zukan* aritzeagatik, baina iparra galtzen hari gara... ni web orrialdera igo zenuen apartamentua ikustera etorri naiz.

FELICITAS: Hauxe da ba, nire izenean dago panteoia, eta sats eginda zegoenez, bizi berri bat eman diot.

ZIGOR: Bizi berria panteoiari?

FELICITAS: Gazteok duzuen alokatzeko arazoa dela eta, mesede egiteko. Ez duzue esaten, gainera, birziklatu egin behar dela?

ZIGOR: Baina andrea! Ez panteoia!

FELICITAS: Hainbat aldaketa egin dizkiot. Ikusten duzun moduan sorgailu honen bidez argindarra duzu eta hodi-sare bat instalatu zidatenez, komuna, dutxa eta konketa dituzu hemen... (*Felicitasek Zigorren besoa gogor hartu eta tirakada batez panteoi barrura sartu du*) Baina etorri barrura mozolo hori!! Hortxe ohea, ondo-ondoan horma-armairua (hildako batzuk kendu nituen instalatzeko), sukaldetxoa bonbona eta guzti, mahaia, aulkia eta ispilu txikia esekia.

ZIGOR: Baina...baina... Zer?? (*Gero eta urduriago*) Udalak honetarako obra baimena eman zizun? Honek badu bizigarritasun-zedularik? Baina... baina... zer ostia ari da pasatzen?

FELICITAS: (*kokotekoa eman dio Zigorri*) Kontuz aho zikin horrekin mutiko!

ZIGOR: (*Eskuaz buruan masajea emanaz*) Kokotekoa ere alokairuan barne?

FELICITAS: Lehenengoa debalde.

ZIGOR: Baina... baina... baina hemen sortu beharko dut nik nire bizi proiektua, ala?

FELICITAS: Merkatua nola dagoen ikusita, hauxe duzu aukerarik onena.

ZIGOR: Horrela bizitzea inhumanoa da!

FELICITAS: Beste gauza askoren moduan, eta aurrera goaz.

ZIGOR: Eta antsietate atake bat ematen badit?

FELICITAS: Irten zaitez panteoitik kanpora arnasa hartzera.

ZIGOR: Eta klaustrofobia krisi bat badut?

FELICITAS: Ba, irten zaitez panteoitik kanpora arnasa hartzera.

ZIGOR: Eta bakardade atake bat ematen badit, zer?

FELICITAS: Heriotzan pentsatu. Edo hildakoengan. *(etenaldi txiki bat eginez)* Baina hobe panteoitik kanpora.

*(Felicitas panteoitik irten eta atea itxi du)*

FELICITAS: Egon hor lasai. Meditatu edo gazteok egiten duzuen edozer egin, amen batean bueltatuko naiz-eta kontratuarekin.

ZIGOR: Zer?? Ez, ez, ez, Felicitas andrea!! Felicitas andrea!! Ez utzi hemen bakarrik! Lagunduuu!! Jainkoaren izenean, lagunduuu!!

AMAIERA